

BEKA SISTEMA, 2023/24 IKASTURTEA

Beka sistemaren helburua

Ikastolen mugimenduan elkartasun kutxa aspalditik martxan dago arazo larriak dituzten ikastolak edota proiektu berriak laguntzeko. Lizeoan ere, aspaldi ezarri zen beka sistema eta honen helburua da, dirua ez izatea seme-alabak Lizeoan matrikulatzeko oztopoa eta oinarritzko kuota ordaintzeko arazoak dituztenei laguntzea. Horrela, Lizeoak kobratzen duen oinarritzko kuotan murrizketak aplikatzen dira ezarritako gehienezko diru-sarrerera baino gutxiago irabazten duten familiei.

Beka sistemaren baldintzak

- a) Kuota honen barruan sartzen dira: administrazioak ordaintzen ez duen hezkuntza-gastua, materiala, garraioa, ikasleen aseguruia... Aldiz, ez dira diruz lagunduko liburuen erosketak, jangela zerbitzua, eguerdiko ekintzak, eskola kirola, irteera pedagogikoak...
- b) Beka laguntza eskatzeko honako dokumentazioa aurkeztu beharko da ezinbestean:
- 2022 urteko errenta aitortpena, familiako tutorea(k) hartzen dituen. Egin ezean 2022ko diru sarrerak ziurtatzen duten agiria.
 - Gurasoen 2022 urteko Gizarte Segurantzaren prestazioen ziurtagiria
 - Gurasoen Gizarte Segurantzako lan-bizitza agiria
 - Gurasoen aurreko hilabeteko nomina baten fotokopia
 - Gurasoak bananduta daudenean, hitzarmen erregulatuak aurkeztu beharko da.
 - Udaleko bizikidetzak
 - Gurasoek baimena ematen dute datu ekonomikoak alderatzeko.
- c) 2-18 urte bitarteko ikasleentzako beka: familiako kide guztien diru-sarrerera gordinak kontuan hartuko dira, eta honako baremazioaren arabera aztertuko dira:

2 kide	3 kide	4 kide	5 kide edo +	Kuota hileko eta ikasleko
0 € – 15.120 €	0 € – 16.630 €	0 € – 18.900 €	0 € – 21.170 €	15 €
15.121 € - 18.150 €	16.631 € - 17.960 €	18.901 € - 22.680 €	21.171 € - 24.320 €	27 €
18.151 € - 22.680 €	17.961 € - 24.950 €	22.681 € - 28.350 €	24.321 € - 31.750 €	50 €

- d) 0 eta 1 urte bitarteko ikasleentzako beka: familiako kide guztien diru-sarrerera gordinak kontuan hartuko dira, eta honako baremazioaren arabera aztertuko dira:

2 kide	3 kide	4 kide	5 kide edo +	Hezkuntza zerbitzua 0 – 1	Kuota hileko eta ikasleko
0 € - 22.680 €	0 € - 24.950 €	0 € - 28.350 €	0 € - 31.750 €	Goizez bakarrik	15 €
				Goiz eta arratsaldean	27 €

- e) Lizeoko beka eskuratzeko derrigorrez Eusko Jaurlaritzako beka eskatu beharko du familiak.
- f) Lizeoko beka onartuz gero, Eusko Jaurlaritzako bekan Lizeoko kontu korrantea jarriko zaio ikasleari, eta materiala eta liburuengatik jasotako laguntza Lizeoarentzat izango da.
- g) Jarraipen batzordea: Lizeoaren beka sistemaren jarraipena egiteko batzorde bat osatu da.

BEKA BATZORDEA